

## **Jose Manuel Etxeita (1841-1915). Oharrak bizitzaz eta literaturaz**

Jon Kortazar

UPV-EHU

- Lan hau Eusko Jaurlaritzako Ikerketa Talde Iraunkorren Sarean kokatzen den LAIDA (IT 851-13) Ikerketa Taldearen emaitza da.

### **OHARRAK BIZITZAZ**

Jose Manuel Etxeitaren bizitzara hurbiltzeko iturri klasiko bi egon dira euskal literaturaren historian: Gregorio Mujikaren (1915) eta Eusebio Erkiagaren lanak (1962). Hortxe ditugu jakin izan diren daturik nabarmenenak. Horrez gain idazlearen autobiografia deiturikoa, *Amoríos de Juana y Manuel* (Etxeita 1886) liburuaren kopia bat aurkitu nuenean eta haren laburpena eman -sendiak ez baitzidan edizio zuzena egiten utzi-, gure idazlearen bizitzaren ezagutza handiagoak lortu genituen. Beste horrenbeste esan dezakegu bere gutuneria utzi zidanean familiak, eta horren bidez Jon Kortazar Billelabetita historiagileak (2008) haren arazo ekonomikoen berri eman zuen. Ondoren Joseba Gabilondok (2013) ekin dio gure idazlearen ikuspegi literarioa eta ideologikoa adierazteari.

Ez da zalantzarik Labayru Ikastegiak lan handia egin duela Jose Manuel Etxeitaren lanak berrargitaratuz eta hitzaurre sendoz hornituz, eta lan horretan nabarmendu dira Adolfo Arejita (1982), zein Aitor Etxebarria(1982) edo Iñaki Sarriugarte. Mundakan eta Busturia inguruan mugitzen zen Txatxi argitaletxeak ere eman zuen argitara *Amoríos de Juana y Manuel* (2003) lan ezezagun hori irakurleen eskuetan utziz.

Gaurkoan iturriok jarraituz Etxeitaren bizitzaren berri eman dezakegu. Jose Manuel Etxeita Mundakan jaio zen

1841eko abenduaren 14an, eta ez orain arte esaten edo idazten zen moduan, 1842an. Jaiotza data aldatu beharra dugu bada. "Echaita" idatzita ageri da bateo dokumentuan. Eta aitaren izena ere horrela ageri da, zalantzarik gabe, errakuntzaz, zeren beste dokumentu guztietan, zein anai-arreben bateo orrietan "Echeita" ongi idatzita agertzen da abizena. Aitaren aldetik Garai herrikoak ziren eta Jose Luis Lizundiak laster argitaratuko duenez, aitaren baserriaren irudikapenak badu *Jayoterrri Maitea* liburuaren sormenarekin loturarik.

### **Mundakatik Manilara.**

*Amoríos de Juana y Manuel* (Etxeita 1886) autobiografian kontatzen duenez, hamar edo hamaika urterekin hasi zen itsasoratzen arrantzale gisa, itsas lanerako baliokoa zen ala ez ikusteko gurasoak agindurik. Hamaika urterekin (1852) ikusi zuen lehen aldiz Juana, eta idazleak dioskunez, une horretan sortu zitzaion maitasunaren garra, denborarekin indartzen joan zitzaiona. Hamabi urterekin Donostiara joan eta "ganbera-mutil" gisa ontziratu zen eta abiatu Kubarara. Hiru urtetan ibili zen ontzi hartan eta Amerika, Ingalaterra, eta Frantziako portuetan atrakatu zuen. Hamabost urteko (1856) zela itzuli zen berriz Liverpooletik herrira. Urte horren udagoiengatik Bilbora joan zen pilotu lana ikastera. Hiru ikastaro egin ondoren (1859) Pilotu Peritu titulua lortu zuen. Bide batez, Etxeitaren musika zaletasuna indartu egin zen gitarra eta bandurria jotzen ikasiz.

Uda horretan Juanak eta Manuelek Natxituako Kontsolazioaren Amarengana pelegin joan ziren, (eta gainera Juana ortozik) eta une horretan hasi ziren elkarren arteko harreman argiak.

18 urterekin Santanderren ontziratu zen eta Ameriketara bidaia bi egin zituen. Ondoren Hirugarren Pilotu izateko azterketak izan zituen Ferrolen. Tituluak Amerikara hiru aldiz joateko beharra zekarren. Lehen bidaia

Guayaquilera izan zen, Hornos Lurmuturra igaroz (dirudienez, horrek bidaia biren beste kontatzen zuen). Handik, urtebete pasatxo igarota, kakaoa ekarriz Santanderrera etorri zen ontzia. Bilbotik Matanzasera egin zuen Etxeitak bigarren bidaia, Bigarren Pilotu titulua lortzeko asmoz. 19 urte eta erdi zituenean, mundakarratu zen eta amaren aurrean aitortu Juanarenganako maitasuna. Ferrolera doanean Bigarren Pilotu tituluaren bila, ezuste handia izan zuen, zeren Hornos Lurmuturra igarotzeak bidaia bi beste kontatzen zuen, bai, baina Hirugarren Pilotu titulua lortzeko, ez Bigarrenarena lortzeko. Une horretan, Jose Manuel Etxeitak Isabel II. Erreginari gutun bat idatzi zion Hornos Kabotik egindako bidaien balioa Pilotu izan nahi zutenentzat erdiesteko. Eta lortu egin zuen Bigarren Pilotu titulua, ontziko lehen ofizialaren besteko, Itsas Guztietan lan egiteko titulua, honenbestez.

Maitasun kontuak, baina, ez ziren zuzen joan. Mundakan zen artean Manuelek jakin zuen gurasoek ez zutela onartzen Juanarekin zuen harremana. Arrazoiak, dirudienez, bi izan ziren: ahaidetasuna, Juana eta Manuel urruneko lehengusu-lehengusinak ziren, eta Juanaren maila ekonomikoa, askoz ere apalagoa; nahiz eta aita kapitaina izan, Juanak jostun gisa lan egin zuen Manuelen amarentzako.

Etxeita Liverpooletik Habanara joan zen. 21 urte zituenean (1863) bere orduko bizitzako unerik larriena heldu zen. Habanatik Mexikoko Matamorosera joan zen ontzia kotoia batzera. Baina haizeak jo eta ontzia oso gaizki zegoela, Habanara joan ziren berriro. Han Etxeita ontziko kapitaina izendatu zuten, kapitaina gaixo zegoelako eta lurrean geratu zelako. Irlandako lurretara heldu zirenean, ekaitzak jo zuen, eta gainera marinelen arteko liskarra sortu zen. Marinel filipinar batek beste bat hil nahi izan zuen. Hego haizeak jo zuenean, aurrera egin zuten, baina laster aldatu zen berriro eta kostaldearen kontra jo zuen ontziak eta tirabira izan zuten. Lurreratu zirenean, nagusi batek

bere etxean hartu zituzten, baina marinelen arteko liskarrak aurrera egin zuen eta batak bestea hil zuen.

Tirabiraren ondoren Etxeita Liverpoolera joan zen, eta hemendik Manilara partitu zen. Hogeita bost urte (1866) bete zituenean, Juanarekin ezkontzea erabaki zuen, eta horretarako Erromako baimena eskatu zuen, senide baitziren. Dena dela, gurasoak kontra jarri ziren, batez ere ama, semearentzako beste norbait zuelako buruan. Zerabilen burutazioaren arabera Juanarekin ezkonduz maila sozialean jaitsi egiten zen Etxeita eta ez zuen ezkontza hori nahi. Ez dirudi, baina, arrazoi indartsua, zeren Juanak baditu gurasoen etxea eta lurralde bat, eta berak, Manuelek, Pilotu titulua eta lana besterik ez.

Kontakizunean, Manuelek dio seme bakarra dela, eta arreba bi dituela. Egia bada ere hori kontatzen duen unean, 25 urte dituelarik, horrela zela, ez da hori artxibategietan ikusten dena, beste anaia izan zuen, Felix, 1844an jaioa eta urte bi geroago hila (1844-1846), eta hiru arreba: Dionisia (1846-1890), Maria Josefa (1850-1856), eta Mauricia (1852an jaioa), hauxe da gurasoen agindua betez ezkondu zena, eta zorigaiztoko bihurtuko zena. Etxeitak bere egoeraren aurkako eredu gisa jarri zuen, bera gurasoei jaramon egin gabe ezkondu baitzen zoriontsu izateko.

1867an Liverpoolera doa berriro, baina urte berean ezkontzen da botereen bidez Juanarekin, Santa Katalina egunean Mundakan eta lau egun geroago Liverpoolen.

### **Manilan.**

Liverpooletik Manilara joan zen Etxeita. Manilan izan zuen bizitzaz dakiguna Gregorio Mujikak (1915) idatzitakoa da mundakarraren nekrologian. Dirudienez, administrazioan kargu handiak izan zituen. Kaiko Batzarreko aholkulari, Tabakalera Konpainiako aholkulari, Filipinak uhartetarako Banakuntzako erakundeko aholkulari,

Itxas-Bazkunako artezkari, Saleroste Kamarako lehendakari eta Manila-ko azken Alkate koloniala.

Bere negozioak hiru alderditan banatzen ziren: Tranbia Konpainian interes handiak zituen. Echeita y Portuondo Ontzi Konpainiaren jabea zen, dena dela, barku hauek korreo lana egiten zuten irla desberdinen artean, eta Espainiako Armadaren menpe geratu ziren gerra garaian, horregatik Etxeitak idatzi zion Weyler jeneralari, ordainketaren zain; gainera Argi indarraren Konpainian parte hartu zuen.

### **Berriz Mundakan**

1900an Espainiak Filipinetako koloniak galdu ondoren, Jose Manuel Etxeita Mundakara dator. Hiru alderdi desberdin landuko ditu une horretan.

a) Etxea. Alde pertsonalean Jose Manuel Etxeitak, bere izena daraman, eta inguruari izena emango dion, etxea eraiki zuen. Lurrak 10.000 pezetako kostua izan zuen eta eraikinak 30.000 mila pezetakoa. Harrezkero, etxe ondoari "Etxeitaren aldapa" deituko diote mundakarrek.

b) Bizibidea. Etxeita Manilatik ekarritako errentetatik biziko da. Bere gutunetan esaten duenez, hauek ziren bere errenten iturri: Compañía Marítima de Manila enpresako 15 akzio zituen eta urtero 1000 pezeta akzioko ematen zizkion. Beraz, etxea urte bitan ordaintzeko beste. Compañía Eléctrica de Manila-ko 254 akzio zituen, eta baita ere parte hartzen zuen Compañía papelera-n eta Compañía Tabacalera-n. Baina hauetan zenbat akzio eta zenbat errenta zituen ez zuen zehaztu bere gutunetan.

Gainera Espainiako Armadarentzako egindako lana kobratzea espero zuen, eta gai hori da Weyler jeneralari bidalitako eskutitzetan gogoratzen diona, nahiz eta dakigunagatik ez zuen inoiz kobratu zor hori.

c) Literatura. Guk dakigula 5 libururen egilea dugu Jose Manuel Etxeita.

1) *Amoríos de Juana y Manuel*. Bere lan autobiografikoa erdaraz Manilan eman zuen argitara, Chofré etxean 1886an. Ezkondu arterainoko bizitza kontatzen du eta bere seme Salvadorri eskainita dago. Etxeitaren pentsakizuna ezagutzeko ezinbesteko testua.

2) *Josetxo* (1909) nobela oso ezaguna da. Fikzioak indarra hartzen du: bai abenturak bai itsasoko bizitzaren inguruan ondu zuen kontakizuna dugu. Neurri batean autobiografikoa, eta ezaguna denez, folietinaren tekniken arabera eratu.

3) *Jayoterra maitea* (1910). Itsas giroan kokatzen bada lehena, eta Mundaka inguruan, baserri giroan bigarrena, eta oraingoan Etxeitak Garay bere aitaren sorterria du gogoan, eta badirudi horretan garaiko nobelan jarraitzen zen bikoiztasuna (itsasoari eta mendiari nobela bana eskaintzekoa alegia) erabili zuela, inork baino lehenago, Mundakako idazleak. Berrito errealismoaren eta ideologia kontserbatzaileak agintzen duen ohiturazaletasunaren artean kokaturik dago nobela. Emigrazioaren gai latza ukitzen du. Baina idilioari berea emanez.

4) *Au, ori ta bestia* (1913). Poesia sorta.

5) Itzulpenak. Jakina da Jose Manuel Etxeitak Antonio Truebaren ipuinen itzulpenak egin zituela. Gainera badakigu, 1914an Anton Trueba-ren ipuinen itzulpenen sarian, lehenengo eta bigarren sariak. «Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan» (Creo en Dios), eta «Urikoa» (El Expósito) lanengatik lortu zituela. Baina Euskal Literaturaren historietan ez da nahikorik azpimarratu Jose Manuel Etxeita hil ondoren, liburu bat egin zela itzulpen biok bilduaz.

## OHARRAK LITERATURAZ

### ***Amoríos de Juana y Manuel eta Josecho.* Autobiografia eta fikzioa**

Begi bistakoa da enbor bereko adar bi direla Jose Manuel Etxeitaren biografia eta *Josecho*. Enborra bere bizitza da, batez ere Manilara joan arteko itsasoan egindako bizitza, 25-26 urte bete artekoa, ondoren, badirudi Filipinetan ez zela horrenbeste itsasoratu, ontzien jabe izanik lurretik ikusten zituela; pilotu edo kapitain aroak gogoan harturik, bai, baina orain negozioetan denbora emanek. Eta adar biak, bere lumak emandako liburu biak: bata autobiografiatik hurbilago, nahiz eta lotsaz fikzioa balitz bezala ematen duen liburua, eta ia-ia gaur egun oso zabaldua den auto-fikzioaren lehenetariko euskal eredu izango genuke. Bigarrena fikziotik hurbilago.

Fikzioaren eta autobiografiaren arteko mugak zeintzuk diren ikusteko nahikoa da lehen *Amoríos* liburuko lehen esaldia irakurtzea: “Yo (Manuel refiere la historia) había estudiado la escuela primaria”. Yo horrek autobiografian jartzen du testua, baina bat-batean damutuko balitz bezala, beste narratzaile batek hartzen du ahotsa eta fikziotzat jotzen du (“la historia”) hark kontatuko duena. Genero nahasketa ederra.

Adar bi esan dugu eta nahikoa da ikustea nola erabili dituen Etxeitak bere izena bere protagonisten izenetan: Jose Manuel izanik, *Amoríos*-en Manuel da protagonista eta *Josechon* bere alter egoa: Jose, hain zuzen ere bere burua. Dena dela material autobiografikoaren erabilera desberdina da batean eta bestean. Zalantzarik ez dago, *Amoríos*... autobiografia da, eta hutsuneak hutsune, esaten duena egiazkotzat jo behar da, edo behintzat sinesgarritasunez irakurri beharko dugu lan hori.

*Josecho*-n, ordea, materiala bera da, baina trataera guztiz desberdina. Kontakizun biak bukatzen dira puntu

berean: Juanarekin/ Eladirekin ezkontzen denean 26 urte dituenen. Hauek baitira bere bizitzako urterik jorienak. Trataera desberdina zenbait puntutan azal dezakegu:

a) Fikzioak eta konbentzio literarioek askoz ere pisu handiagoa dute. Hain zuzen ere, folletinaren teknikak; ume galduak, kitanoek lapurtuak, gora egiten du gizartean eta bere identitatea eta bere posizio ekonomiko zein soziala indartuak geratzen dira benetako "aita", benetako familia ezagutzen duenean, bera ere "patriarka" agertzen denean gizartearen aurrean, batez ere Eladirekin ezkontzea debekatu diotenen aurrean. Nobelan zehar, "herri" nobelen zenbait teknika ezagunak ageri dira: pirata nobelenak, itsasoko kontakizunenak, maitasun nobelenak.

b) Fikzioan Jose Manuel Etxeidak moldatu egiten ditu bere bizitzako pasadizoak. Bada puntu nagusi bat bere testuetan: bere ezkontzaren auzia. Badakigu errealitatean bere amak ez zuela nahi ezkontza hori. Fikzioan, aldiz, eta azterketa psikoanalitikorako ematen du gaiak, Eladiren gurasoak dira ezkontzaren aurka direnak, eta ez hori bakarrik, zakar agertzen dute euren guraria, gainera fikzioa luzatzeko asmoz, Etxeidak hiru senargai asmatzen dizkio neskaxa gazteari.

Tokiei arreta jartzen badiegu, *Amoríos*en aipaturiko benetako tokiak agertzen dira lanean: Habana, eta batez ere Mexikoko Matanzas. Jakin badakigu Etxeitaren unerik gogorrena Matanzasetik Irlandara egindako bidaiari gertatu zela, halakoan marinela batek beste bat hil zuelako bere burua zaintzearen. Hemen ere Etxeidak moldatu egiten du gaia eta espetxeratua dena Josecho da, eta ez marinela, eta ez Irlandan, Mexikon baino.

Bada beste aldaketa bat oso berezia. Manila presente dago baina zeharbidez. Manilara doana ez da Josecho, baizik ere bere benetako aita, eta handik aberasturik itzultzen da. *Amoríos* autobiografia eta *Josecho* nobela bukatzen dira Manuel eta Juana, eta Josetxo eta Eladi

ezkontzen diren unean, hau da, kronologiaren aldetik paretsu. Baina Manuel Filipinetan eta itsasoan aberasten den artean, Josetxo Argentinan eta baserriko lanari esker aberasten da. Zergatik aldaketa hori? Soilik asmamena egin dezakegu. Etxeitak bere garaira ekartzen du ekintza. Non aberasten ziren 1909an euskaldunak? Ameriketan, Argentinan. Filipinak -jada galduak- urrun geratzen ziren. Filipinetako bidea zabalik zegoen XIX. mendeko azken herenean, baina XX. mende hasieran ez zen euskaldunak joateko toki desiragarria. Gaurkotze horrek badu zerikusirik ere Etxeitak mantentzen duen ikuspegi ekonomikoarekin. Nonbait lurrari loturiko ekonomia askoz ere ziurragotzat jotzen zuen. Itsasokoa eta berak jarraitutako bidea gorabehera handikoa da, eta horregatik ekonomia moderno eta finantza munduari lotua baino, gurago du ekonomia tradizionalaren alde egin: Nobeletan, noski. Bizitzan beste kontu bat izan zen.

### **Jose Manuel Etxeita eta Antonio Truebaren ipuinen itzulpenak**

Edozein euskal literaturaren historiatan aipatzen da Etxeitak Truebaren lanak euskaratu zituela eta argitaratu *Euskal Esnalea* aldizkarian, bide batez, bere heriotzaren berri gertatu eta oso gutxira eman zuen argitalpenean. Kontua da, baina, Truebaren lanen itzulpenen lehiaketetan lehen eta bigarren saria irabazi ondoren, eta aldizkariak ipuinok atalka eman zituen artean, Jose Manuel Etxeitak haiekin liburua argitaratzeko asmoa izan zuela. Bere poltsikotik dirua jarri eta 200 ale argitaratzeko nahia agerian utzi zuen. Heriotzak baina ez zion asmoa betetzen utzi, eta orduan *Euskal Esnalea* aldizkariako zuzendaritzako taldekoek hartu zuten liburua argitaratzeko erabakia.

Aldizkariak zuzendaritzako batzordeko berriak eman ohi zituen eta haietako batean, otsaileko eta martxoko

alean, nekrologikoan honela azaldu zituen Gregorio Mujikak Mundakako idazlearen asmoak:

“Como saben los lectores hemos comenzado la publicación en forma de folletín del cuento *Creo en Dios* de Trueba, vertido por el señor Echeita al euskera. Claro está que lo continuaremos y terminado éste publicaremos otro cuento del mismo Trueba traducido también por Echeita con el título *Urikoa*.

Y no solo los publicaremos en esta forma, sino que además se hará también una edición especial que el señor Echeita preparaba por su cuenta. De este modo realizamos la última ilusión literaria que abrigaba nuestro amigo” (Mujika 1915: 55.)

Askoz ere zehatzagoa da hurrengo oharra, jada *Euskal Esnalearen* zuzendaritza batzordekoa, haren proiektuak bere eginez:

“El Señor Director de la Revista *Euskal-Esnalea* manifestó que aprovechando la composición que se hacía para publicar en la Revista los cuentos de Trueba que vertidos al euskara por D. José Manuel de Echeita se están dando a luz en forma de folletín, el traductor había dispuesto hacer a su costa una edición de 200 ejemplares. Pero hallándose en prensa la obra, el Sr. Echeita dejó de existir, y el Director de la Revista propuso que como débil muestra de gratitud hacia el escritor que siempre tuvo hondo afecto a la Sociedad *Euskal-Esnalea*, se continuara la edición a costa de ésta. La Junta aprobó unánime la proposición” (Euskal Esnalea 1915: 140).

Liburua argitaratu egin zen eta banaketa ere oso bitxia izan zen, oparitu egin baitzen:

“El secretario manifestó que el acuerdo referente a la publicación, por cuenta de la Sociedad, de una edición de los cuentos de Trueba, vertidos al euskera por D.

Jose Manuel Echeita, había sido ya cumplida, y que, en consecuencia, se hallaba a disposición de la Junta la tirada íntegra de 200 ejemplares.

La Junta dispuso que por ser esa edición del último trabajo del Señor Echeita, homenaje a la memoria del que fue activo colaborador, no procedía ponerla a la venta, y acordó como primera medida enviar 25 ejemplares a D. Salvador de Echeita, hijo del autor de la versión euskérica de los cuentos. Como la versión está en dialecto vizcaíno se decidió que otros cien ejemplares se distribuyeran entre los alumnos de la clase de euskera que costeadas por la Excm. Diputación de Vizcaya, regentan en Bilbao los profesores D. Resurrección M. de Azkue y D. Evaristo de Bustinza. Los ejemplares restantes se distribuirán entre los elementos activos de Euskal-Esnalea y los señores socios que los soliciten mientras haya ejemplares disponibles (Euskal Esnalea 1915: 172-173).

Bitxia izan zen liburuaren argitalpena; zeren bertsio bi egin ziren urte berean. Lehen liburuak, laburrak, Etxeitak itzultitako ipuin biak bildu zituen, eta izenburu bikoitzarekin argitaratu zen Donostian 1915ean Martin Menaren etxean. *Ziñistuten dot Jaungoikoa'gan. Urikoa*, Echeitaren izenarekin, baina azalean azalduz Truebarenak zirela jatorrizkoak.

Lehen argitalpenean Jose Manuel Etxeitaren ipuin bion itzulpenak bildu ziren; bigarren agerraldian aldiz, beste hirugarren bat gehitu zitzaion, "Jon Uso". *Euskal Esnaleak* aldizkariak egin zuen lan hori. Eta berez, liburu beraren argitalpen desberdin bi egin zituen. Bigarren agerpenean Etxeitaren izenaren azpian "Jon Uso" ipuinaren itzultzailearen izena ageri zen "barrena 'tar N." (sic). Agian hauxe da gehien zabaldu dena.

Baina liburu beraren argitaraldi bi daude. Jose Manuel Etxeitaren bosgarren liburua.

## BIBLIOGRAFIA

AREJITA, Adolfo (1982): "Etxeitaren euskera" in ETXEITA, Jose Manuel: *Josetxo*. Bilbo. Labayru-BBK. 19-30.

----- (1995): "Etxeitaren idazlangintza" in ETXEITA, Jose Manuel: *Josetxo*. Bilbo: Labayru. BBK Fundazioa. 7-63

GABILONDO, Joseba (2013): "Galdós, Etxeita, Rizal. Madrid, Mundaka, Manila: On colonial disavowal and (post)imperial articulations of the Hispanic Pacific-Atlantic. 452 F.

ERKIAGA, Eusebio (1962): "Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga". *Oleri*. III-IV, 107-123.

ETXEBARRIA, Aitor (1982): "Etxeita eta bere nobelagintza" in ETXEITA, Jose Manuel: *Josetxo*. Bilbo Labayru-BBK.. 7-18.

ETXEITA, Jose Manuel (1886): *Amoríos de Juana y Manuel y Lo que es la madre a pesar de los pesares*. Manila: Chofré. 2003. Txatxi Irratia. Mundaka.

EUSKAL ESNALEA (1915): "De Euskal-Esnalea. Junta Directiva". 107. 1915 Garagarrilla 15. 139-141.

----- (1915): "De Euskal-Esnalea". 1915 uztaila 30. 172-175.

KORTAZAR, Jon (1999): *Jose Manuel Etxeita*. Bilbo: BBK Fundazioa.

KORTAZAR BILLELABEITIA, Jon (2008): "Jose Manuel Etxeitaren (1842-1915) nortasun analisia, bere gutunen bidez". *RIEV*.53. 2. 475-505.

MUJIKA, Gregorio (1915). "Echeita'tar Jose Manuel/ Don Jose Manuel de Echeita". *Euskal Esnalea*. 100-101. 1915ko otsaila 28-epaila 15 . 49- 53.

SARRIUGARTE, Iñaki. (1988) "Sarrera" in ETXEITA, Jose Manuel: *Jaioterri Maitia*. Bilbo: Labayru-BBK Fundazioa. 7-40.



## Certificado de Defunción

En la anteiglesia y puebla de Mundaca provincia de Vizcaya obispado de Vitoria a dos de marzo de mil novecientos quince. Yo el infrascrito Presbitero Cura E cumeno de la iglesia parroquial de Santa María de la misma mandé dar sepultura eclesiástica al cadáver de D. José Manuel de Echeita y Luzárraga natural de ésta, de profesión marino capitán mercante, y de setenta y tres años de edad. Falleció a las once de la noche del día primero de este mismo mes, en el chalet del camino real que va a Bermeo de esta jurisdicción, de muerte natural ocasionada según certificación facultativa de bronquiítis capilar. Era hijo legítimo de D. Marcos de Etxeita y de D<sup>a</sup> Josefa de Luzarraga naturales respectivos de Garay, Vizcaya y de ésta. Se hallaba unido en el acto del fallecimiento de D<sup>a</sup> Juana de Abaroa natural de ésta. Recibió los Santos Sacramentos de penitencia, sagrado viático y extrema unción. Testo. Se le hizo entierro de cuerpo presente. Fueron testigos del sepelio D. Antonio de Arrasate sepulturero y D. Juan de Uñarte sacerdote naturales respectivos de Pedernales y Larrabezua Vizcaya y vecinos de ésta. Para que conste lo firmo fecha ut supra.

Lic. José M<sup>e</sup> de Basabe

X

José Manuel  
de  
Echaíta.

Dia. Casare de Diciembre año de mil ochocientos cuarenta y uno: Yo D. Francisco Antonio de Alandaca, Escribano, Abogado, Conflicto de Causa de la Unica Voluntaria Lenocquial Santa Maria de esta Archidiotaria y Puebla de Alandaca, bausie en ella a su Honor a quien puse por nombre José Manuel, quien segun Relacion de la Comadre nacio a las cuaras y media onas de la mañana de este mismo dia: Dijo legitimo de Alarco de Echaíta, natural de Baray, (Anglo de la Chica Iglesia de Berria) y de el de de Suranraga, natural, y feligrues, y vecinos, de la referida de Baray: Alarco y Maria Matrina de Alomoto Duna de itio, ambos naturales, feligrues, y vecinos, de la referida de Baray, ambos feligrues Juan Casarita de Suranraga, natural del Barrio de Donenigos, y Alameda de Obbara, natural, ambos feligrues, y vecinos, de la nominada de Alandaca: Sendo padrinos Alarco de Alomoto Duna de itio, y Ana Elvario de Echaíta, de la nominada de Alandaca de Baray, a quienes adveni el parentesco espiritual y de mas de las oaciones a que se constitucion: y para que conste firmo yo el Causa.

D. Francisco Antonio de Alandaca

ABRE